



tang Passen hegazkin hartan zihoan pertsona baten gorpua, eta 2005ean hegazkina bera, elurraren azpian. **rtve.es webgunean** irakurri dugu estatistiken arabera gero eta hegazkin gutxiago desagertzen direla. Horrela, bi urteko epean, 1948tik 1949ra, zortzi abioi galdu baziren, 1950eko hamarkada osoan hamasei baino ez ziren desagertutzat eman, eta XXI. mendea hasi zenetik beste bederatzi, horietako hiru 2010az geroztik.

Russia Today telebista kateak Malaysiako hegazkinaren desagertzearen inguruko hamasei teoria bildu ditu, **rt.com webgunean** irakurri dugunez. Lehenengoaren arabera, hegazkina AEBek eta Thailandiak egindako maniobra militar batzuen eraginez erori zen itsasora, nahi gabe misilen batek jota. Nigel Cawthorne idazle britainiarraren "Flight MH370: The Mystery" liburuan oinarritzen da aipatu teoria. «Inork ez du nahi beste Lockerbie bat. Beraz, gertaeran nahastuta daudenek arrazoi ugari lituzkete gertatutakoa ezkutatzeko».

Bigarrenak dio Bitbull izeneko raperoak orain bi urte iragarri zuela istripua. Shakira kolonbiarrarekin batera abesten duen kanta bateko letra MH370 hegaldiari gertatutakoarekin lotzen dute.

Umore puntu batekin esplikatzen du gertatutakoa Reddit webguneko irakurle batek: Boeing 777 modeloaren 404. abioia zen galdutakoa, «eta 404 erroreak esan nahi du ez dela aurkitu». Khalid Abu Baker Malaysiako poliziaburuak beste aukera bat aipatu zuen: hegazkinean zihoan norbaitek sekulako aseguruua kontratatu zuela, bere familia aberasteko asmoarekin. «Aukera guztiak aztertu behar ditugu», esan omen zuen.

Bosgarren teoriak dio aparatua ez zela erori, eta Boeing konpainiak eta AEBetako CIA zerbitzu sekretuek jakin dezaketela non dagoen, Mahathir Mohamad Malaysiako lehen ministro ohiak esan zuenez. Hegazkina bahitu izan balute, CIAk aparatua kontrola bereganatzeko baliabide teknologikoak baditu.

Poliziak desagertutako Boeingaren kapitainaren etxea miatu zuen eta bertan hegaldi simulagailu bat aurkitu zuten, Indiako ozeanoan dauden bost aireportuko datuekin, Diego Garcia AEBen uharte-basea barne, Malaysiako hedabideek aipatu dute hegazkina uharte horretara eraman izana ezin dela baztertu. AEBetako Enbaxadak esan du horrelakorik ez dela gertatu.

Galdutako abioian Freescale Semiconductor AEBetako enpresako hogeit langile zihoazen. Aipatu konpainiak hegazkinak ikusezin bihurtzen dituen teknologia militarra garatzen du. **«International Business Times» aldizkariak** idatzi du desagertzea esperimentu baten ondorio izan daitekeela.

Zortzigarren teoriaren arabera, erdieroale patente baten lau bazkide zihoazen hegaldian. Istripuaren eraginez, bestela ere oso aberatsa zen Jacob Rothschild patentearen jabe bakarra bihurtu da. Bederatzigarrenak dio estralurtarren esku hartzeak desagerrarazi zuela abioia.

Hamargarren teoriak dio MH370 hegaldiak Singapurretik Bartzelonara zihoan beste Boeing bat aurkitu zuela bidean eta haren itzalpean zegoela bere ibilbidea aldatu egin zuela mendebalderantz. Keith Ledgerwood AEBetako blogariak garatutako ideia da.

Talibanak ageri dira hamaikagarren hipotesian. **«MK» Errusiako egunkariak** aipatutako iturri militarretan oinarritzen da eta dio hegazkina talibanek harrapatu eta Afganistanera eraman zutela. Hamabigarrenak, berriz, pilotuak edo kopilotuak bere buruaz beste egin zutela esaten du. Azken teoria hori ez dute adituek erabat baztertu, tankerako zortzi kasu izan baitira azken berrogei urteotan.

Hamahirugarren teoriak gogorarazten du **CNN telebista kateak** esan zuela meteoro bat izan zela hegazkina desagertutako eremuan. Meteoroak erabat suntsitu omen zuen aparatua eta horregatik ez dago hondakinik. Agintariek zergatik ezkutatu dute gertatutakoa? Turismoa ez kaltetzeko, meteoroak hegazkinik ez hartzeko beste arrazoi bat emango lukeelako.

Bermudako Hirukia ageri da hamalaugarren teorian, Atlantikoko eremu horretan hegazkin eta itsasontzi ugari desagertu izan direlako. Hurrengo teoriak aditzera ematen du sute ikaragarri batek hegazkinaren barruan zihoazen pertsona guztiak hil zituela eta aparatua denbora askoan hegan jarraitu zuela. Azkenak gure planetan leudeken indar misteriotsuak aipatzen ditu. **Nature News webgunean** idatzi dutenez, arma berri bat izango balitz, horren jabeak munduko herri guztiak bere mende jartzeko aukera izango luke. •

Noari gutun irekia

Ruben Sanchez

Uztailaren lehen egunetan Gasteizko Jazzaldian kontzertu bat ematekoa zara Noa, eta honen aurrean zuri gutun ireki hau zuzentzen dizugu Euskal Herriko hainbat kulturgilek.

Irakurri genuen 2009ko Gazako sarraskiaren harira gazatarrei idatzi zenien gutuna. Irakurri eta entzun dizugu beste batzuetan bakearen alde zaudela, bi estaturen irtenbidearen alde, bi aldeetan egin direla gauza izugarriak berdin arbuatzen dituzula...

Gu ez gara ausartuko zein irtenbide politiko, zein muga, zein gizarte mota behar den esaten. Hori ez dagokigu guri. Baina bai uste dugu, edozein dela ere konponbide hori, giza eskubideen errespetutik eraiki behar dela.

Horregatik eskatzen dizugu bat egin dezazun hiru aldarrikapen hauekin:

–Israelen palestinarrak beren jatorriagatik baztertuta bizi dira, *apartheid*-aren Hegoafrikan beltzak bizi ziren bezala. *Apartheid* hori eten egin behar da.

–Gaza eta Zisjordania militarki okupatuta daude, koloniez josita, *apartheid* harresiak zatikatuta: okupazioa bertan behera utzi behar da.

–Israel sortu zen egunetik, palestinarren Nakba gertatu zenetik, milioika palestinarrak utzi behar izan dute beren lurra, beren etxea... Itzultzeko eskubidea dute.

Antzeko kanpaina bat egin zen munduan Hegoafrikako *apartheid*-aren kontra. Orduan milioika herritarrekin batera, hainbat artistak ere babestu zuten. Gaur egun ere hala gertatzen ari da, eta gero eta artista, kulturgile eta akademiko gehiago ari da planteamendu honekin bat egiten. Guk egiten dugun moduan.

Kontzertu eta hitzaldietan hainbat aldiz mintzatu zara bakearen alde; bake hori palestinarren hiru aldarrikapen horien gainean eraiki behar dela uste al duzu?

Adeitasunez. •